luazio-organoak inguruabar berezirik hautematen ez badu.

4.– Curriculum Vitae laburtuan aurkeztutako ekarpenak aztertzean, eskatzaileak emandako «kalitate-zantzuak» ere kontuan hartuko dira; honako hauek izan daitezke:

– Ekarpen bakoitza argitaratu duten hedabideek zientziaren arloan duten garrantzia. Argitalpenetarako nazioarteko kalitate-irizpideak dituzten diziplinetan, ezinbesteko erreferentzia izango dira horiek.

– Beste egileek beren argitalpenetan eskatzailearen lana aipatzea, eta aipamenotan lanak egin dituen ekarpenak edo dagokion arloan izan duen eragina garrantzitsua dela adieraztea.

– Doakionak bere lanak ezagutzaren aurrerapenari egin dizkion ekarpenei eta ekarpenon interes eta sormenari buruz duen ikuspegia labur ematea.

– Patenteen edo baliagarritasun-modeloen ustiapenari buruzko datuak.

– Aldizkarietan espezializatuetan agertutako aipamenak.

complementario, salvo en circunstancias especiales apreciadas por el órgano evaluador.

4.– En el análisis de cada aportación presentada en el curriculum vitae abreviado se tendrán también en cuenta los «indicios de calidad» que alegue el solicitante, que podrán consistir en:

– Relevancia científica del medio de difusión en el que se haya publicado cada aportación. En las disciplinas en las que existan criterios internacionales de calidad de las publicaciones estos serán referencia inexcusable.

– Referencias que otros autores realicen, en trabajos publicados, a la obra del solicitante, que sean indicativas de la importancia de la aportación o de su impacto en el área.

– Apreciación, expresada sucintamente, del propio interesado sobre la contribución de su obra al progreso del conocimiento, así como del interés y creatividad de la aportación.

– Datos sobre la explotación de patentes o modelos de utilidad.

– Reseñas en revistas especializadas.

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 1644

EBAZPENA, 2008ko otsailaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkari nagusiarena, Kimika Zientzien Fakultatearen Arautegia EHAAn argitara dadila agintzeko dena.

Unibertsitateak bere araubide propioa dauka erakundea antolatzeko, bere interesen defentsan aritzeko balio diona, Konstituzioak 27.10. artikuluan onartzen duen unibertsitateen autonomiatik eratorria. Araubide horri atxikita dago bere arauak egiteko erakundeak daukan ahalmena.

Ahalmen horrez baliatuta, Unibertsitateak bere Estatutuak dauzka, erakundearen antolaketaren ezaugarri berezi diren arlo eta organoak erregulatzen dituzten oinarrizko arauak. Eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuetako 189. artikuluak dio ikastegi bakoitzak bere arautegia izango duela, Ikastegi Batzarrak egin eta Gobernu Kontseiluak onartu beharko duena.

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

## 1644

RESOLUCIÓN de 20 de febrero de 2008, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena publicar en el boletín oficial del país vasco el reglamento de la facultad de ciencias químicas.

La Universidad cuenta con un régimen propio de autoorganización, poder ejercitable para la defensa de sus intereses propios, derivado del reconocimiento que la Constitución en su artículo 27.10 hace de la autonomía de las Universidades. Elemento sustancial de este régimen es la capacidad de autonormación.

En ejercicio de esta capacidad la Universidad se dota de sus Estatutos, normas básicas que regulan por sí mismos aquellas materias y órganos que estructuran los rasgos esenciales de la organización universitaria. El artículo 189 de los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea dispone que los centros docentes se regirán por un Reglamento elaborado por la Junta de Centro y aprobado por el Consejo de Gobierno.

2004ko martxoaren 12an argitaratu zen EHAAn otsailaren 25eko 3/2004 Legea, Euskal Unibertsitate Sistemarena. Eta Lege horrek dio, 10. artikuluko bigarren atalean antolaketaren eta jarduteko moduaren gainean unibertsitate publikoko gobernu-organoek emandako estatutuak eta arauak, baita horien gaineko aldaketak eta orokorrean aplikatzekoak diren xedapenak ere, Esukal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko direla, eta ez direla indarrean jarriko harik eta testuak oso-osorik argitaratu arte.

Gobernu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak, bi mila eta zortziko otsailaren 12ko bileran, Kimika Zientzien Fakultatearen Arautegia onartzea erabaki zuen.

Aipaturikoa kontuan hartuta, eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legeko 10. artikuluko bigarren atala betetzeko, ondokoa

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Eranskinean aipatzen den Kimika Zientzien Fakultatearen Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

***Bigarrena.***– Ebazpen hau irmoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da haren kontra, hilabeteko epearen barruan, erabakia hartu zuen organoan. Bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan bi hilabeteko epearen barruan. Beti ere, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Leioa, 2008ko otsailaren 20a.

Idazkari nagusia,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

ERANSKINA

KIMIKA ZIENTZIEN FAKULTATEAREN ARAUTEGIA

ATARIKO TITULUA

Arautegi honen xedea gaur egun Kimika Zientzien Fakultatean dagoen egoera 2004ko urtarrilaren 12an EHAAn argitaratutako 322/2003 Dekretuak, abenduaren 23koak, onetsitako Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Estatutuetako beharkizunetara egokitzea da; dekretuaren 185-191 artikuluek arautzen dute ikastegiei dagokiena. Bereziki, UPV/EHUko Idazkari Nagusiak 2005eko irailaren 1eko EHAAn argitaratutako eta 2005eko ekainaren 20ko Ebazpen bidez onetsitako UPV/EHUko Ikastegien Esparru Arautegian ezarritakoa betetzen du, Estatutuetako 189.1 artikuluak ezarritakoaren arabera, zeinek beren-beregi aurreikusten duen Gobernu Kon-

Con fecha 12 de marzo de 2004 se publicó en el BOPV la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco. Esta Ley establece en su artículo 10 apartado dos que los estatutos y las normas de organización y funcionamiento de la universidad pública, así como sus modificaciones y las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno de la misma, serán publicados en el BOPV y no entrarán en vigor hasta la íntegra publicación de sus textos.

La Comisión Permanente del Consejo de Gobierno en su sesión de 12 de febrero de dos mil ocho acordó aprobar el Reglamento de Centro de la Facultad de Ciencias Químicas.

Por todo lo anterior, en cumplimiento del apartado segundo del artículo 10 de la Ley 3/2004, del Sistema Universitario Vasco,

RESUELVO:

***Primero.***– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el Reglamento de la Facultad de Ciencias Químicas en los términos recogidos en el anexo.

***Segundo.***– Esta Resolución por ser firme agota la vía administrativa y contra ella se podrá interponer en el plazo de un mes recurso potestativo de reposición ante el órgano que la dictó, o recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de dos meses en ambos casos desde el día siguiente a su publicación en el BOPV.

En Leioa, a 20 de febrero de 2008.

El Secretario General,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

ANEXO

REGLAMENTO DE LA FACULTAD DE CIENCIAS QUÍMICAS

TÍTULO PRELIMINAR

El presente Reglamento persigue la adaptación de la situación, actualmente existente en la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea, a las exigencias de los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), aprobados por el Decreto 322/2003, de 23 de diciembre, BOPV de 12 de enero de 2004, cuyos artículos 185 -191 regulan lo relativo a los centros docentes. Da cumplimiento, en particular, a lo dispuesto en el Reglamento Marco de los Centros Docentes de la UPV/EHU, aprobado por Resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 20 de junio de 2005, BOPV de 1 de septiembre de 2005, según lo dispuesto por el artículo

tseiluak ikastegi bakoitzari bere Arautegia gauzatzeko aukera emango lioketen jarraibideak jasoko lituzkeen Esparru Araudia onetsiko duela, eta horixe da, beraz, inspirazio-iturria.

Ondorioz, arautegi honetan Kimika Zientzien Fakultatearen funtzionamendua zuzenduko duten jarraibideak jasotzen dira, eta estatutu-esparruaren baitan bere burua antolatzeko ahalmena beti errespetatu behar da. Arautegi hau gauzatzean, era berean, praktikan arautu beharra ikusi diren alderdiak ere jaso dira.

I. TITULUA

IZAERA, OSAERA ETA EGINKIZUNAK

*1. artikulua.–* Definizioa.

1.– Kimika Zientzien Fakultatea, hezkuntza eta ikerketako zentro publikoa da, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Campusean dago. Egoitza Donostian du.

2.– Kimika Zientzien Fakultatearen xedeak irakaskuntza eratzea eta antolatzea, koordinazio akademikoa planifikatzea eta gauzatzea eta unibertsitateko tituluak lortzeko kudeaketa administratiboa dira.

3.– a) Kimika Zientzien Fakultateak I. eranskinean dauden irakaskuntzak koordinatzen eta ematen ditu.

b) Edonola ere, Arautegi hau aldian behin eguneratuko da, ofizialki onartu ostean, Ikastegiak koordinatu eta emango dituen titulazioekin, Fakultateko Batzarrak onetsiko duen eranskin berezi baten bidez.

Eranskin hori Arautegi hau argitara emango den bide eta prozedura bera jarraituz argitaratuko da.

*2. artikulua.–* Araubide Juridikoa.

1.– Kimika Zientzien Fakultatea indarrean dagoen Legediaren arabera zuzenduko da: UPV/EHUren Estatutuen arabera (2004ko urtarrilaren 12ko EHAAn argitaratutako 322/2003 Dekretuaren, abenduaren 23koaren, bidez onetsitakoa), arautegi honen arabera (indarrean jartzen den unetik aurrera), arautegi honek aurreikusten ez dituen alderdi guztietan ordezkoa izango den UPV/EHUko Ikastegien Oinarrizko Arautegiko jarraibideen arabera (2005eko irailaren 1eko EHAA), eta aplikazio orokor eta adosgarriko gainerako Arautegiaren arabera.

2.– UPV/EHUko Gobernu Kontseiluari egokituko zaio Arautegi hau eta dagozkion eranskinak onestea, nahitaezko legezkotasun txostenaren ondoren.

189.1 de los Estatutos que preveía, explícitamente, que el Consejo de Gobierno aprobara un Reglamento Marco que contuviera las directrices que permitieran a cada Centro Docente la elaboración de su propio Reglamento, siendo ésta, por tanto, su fuente de inspiración.

Se recoge, en consecuencia, el conjunto de directrices que han de regir el funcionamiento de la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea, cuya capacidad de autoorganización en el marco estatutario debe ser siempre respetada. En la elaboración de este Reglamento se abordan, igualmente, aquellos aspectos cuya necesidad de regulación ha sido puesta de manifiesto en la práctica.

TÍTULO I

NATURALEZA, COMPOSICIÓN Y COMPETENCIAS

*Artículo 1.–* Definición.

1.– La Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea, es un centro público docente e investigador, integrado en el Campus de Gipuzkoa de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. Su sede se ubica en Donostia-San Sebastián.

2.– Son finalidades de la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea la ordenación y organización de la enseñanza, la planificación y realización de la coordinación académica, así como la gestión administrativa a los efectos de la obtención de títulos universitarios.

3.– a) La Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea coordina e imparte las enseñanzas que figuran en el anexo 1.

b) En todo caso, el presente Reglamento se actualizará periódicamente con las titulaciones que, una vez aprobadas oficialmente, coordine e imparta el Centro, mediante un anexo específico que será aprobado por su Junta de Facultad.

Dicho anexo, se hará público por los mismos medios y procedimiento que el presente Reglamento.

*Artículo* 2.– Régimen jurídico.

1.– La Facultad de Ciencias Químicas /Kimika Zientzien Fakultatea se regirá por la Legislación vigente, por los Estatutos de la UPV/EHU (aprobados mediante el Decreto 322/2003, de 23 de diciembre, BOPV del lunes, 12 de enero de 2004), por el presente Reglamento (una vez que entre en vigor), por las directrices del Reglamento Marco de los Centros Docentes de la UPV/EHU (BOPV del jueves, 1 de septiembre de 2005), que tendrá carácter supletorio en todo lo no previsto en el presente Reglamento, y por la demás Normativa de general y concordante aplicación.

2.– Al Consejo de Gobierno, de la UPV/EHU, corresponderá la aprobación del presente Reglamento y sus correspondientes anexos, tras el preceptivo informe de legalidad.

3.– a) Kimika Zientzien Fakultatearen egoitza Fakultateko eraikinean bertan dago, eta egungo helbidea honako hau da:

Manuel de Lardizábal, 3
20018 Donostia-San Sebastián

b) Sailak, irakaskuntza eta ikerketa dutenak eta egoitza Ikastegian dutenak, 1. eranskinean agertzen dira.

Ikastetxean irakaskuntzan jardun lezaketen beste sail batzuk, Arautegi honetako 1.3.b) artikuluan aipatzen den Eguneratze eranskinean sartuko dira.

Era berean, eranskin berean sartuko dira, aurrera begira, Fakultatean kokatu ahal izango diren sailak, eta era horretara eguneratzeari eutsi egingo zaio.

c) Irakaskuntzan eta ikerketan laguntzeko Kimika Zientzien Fakultatean dauden zerbitzuen zerrenda Arautegi honen eranskinean jasoko da, zein aldian-aldian eguneratuko baita.

4.– Fakultateko kolektiboek bidezko jotzen dituzten kexak, erreklamazioak eta iradokizunak Dekanotza Taldera ahalik eta azkarren helarazi ahal izateko sistema Administrazio Prozedura Erkidean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa) araututa dagoena da.

Prozedurari ekiteko dagokion organoari zuzendutako idatzi bat aurkeztuko da Ikastegiko Idazkaritzan dagoen Ikastegiko Erregistroan.

Pertsona edo talde interesdunak sinatutako idatzi hori dagokion organora igorriko du Zerbitzu horrek barrutik.

Gaia ezargarri den arauak (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak) inposatzen duen bultzadaren eta azkartasunaren arabera tramitatuko da, eta ebazpena arrazoitua eta jakinarazia izango da.

5.– Kimika Zientzien Fakultateak UPV/EHUren anagrama erabiliko du.

*3. artikulua.–* Osaera.

1.– Kimika Zientzien Fakultatea hauek osatzen dute: ikastegiko kideek eta bertara lotutako gainerako langileek.

2.– Hauek dira Kimika Zientzien Fakultateko kideak:

a) Ofizialki ikastegira atxikita dauden irakasle guztiak, indarrean dagoen Irakasleen eta Ikertzaileen Lanpostuen Zerrendaren arabera.

3.– a) La sede de la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea queda constituida en el propio edificio de la Facultad, cuya dirección actual es:

P.º Manuel de Lardizábal, 3
20018 Donostia-San Sebastián

b) Los Departamentos, con actividad docente e investigadora y sede en el Centro se reflejan en el anexo 1.

Otros Departamentos, que pudieran tener actividad docente en el Centro, se incluirán en el anexo de actualización, al que se hace referencia en el artículo 1.3.b) del presente Reglamento.

Así mismo, se incluirían en dicho anexo aquellos Departamentos que puedan, en un futuro, ubicarse en la Facultad, manteniendo así la actualización correspondiente.

c) La relación de Servicios de soporte a la docencia e Investigación existentes en la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea aparece recogido en el anexo de este Reglamento que será periódicamente actualizado.

4.– El sistema a través del cual los distintos colectivos de la Facultad pueden hacer llegar con celeridad al Equipo decanal cuantas quejas, reclamaciones y sugerencias estimen pertinentes, es el regulado en el Procedimiento Administrativo Común (Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común- LRJPA).

El procedimiento se iniciará mediante la presentación de escrito, dirigido al Órgano correspondiente, en el Registro de la Facultad, que se ubica en la Secretaría del Centro.

Dicho escrito, firmado por la persona o grupo interesado, será remitido por dicho Servicio, internamente, al Órgano correspondiente.

La tramitación del asunto se someterá al impulso y celeridad que impone la Norma de aplicación (LRJPA) y su Resolución será motivada y notificada.

5.– La Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea utilizará el anagrama propio de la UPV/EHU.

*Artículo 3.–* Composición.

1.– Componen la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea todos sus miembros, pertenecientes a la misma, y el resto de su personal vinculado.

2.– Son miembros de la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea:

a) Todo el profesorado oficialmente adscrito al Centro, según la vigente Relación de Puestos de Trabajo de Personal Docente e Investigador (P.D.I.).

b) Ikastegian irakasten diren titulazio eta ikasketa ofizialetan matrikulatuta dauden ikasleek.

c) Ikastegira atxikitako administrazio eta zerbitzuetako langileak, indarrean dagoen Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren Lanpostuen Zerrendaren arabera (A.Z.P.)

Kimika Zientzien Fakultatera lotuta egongo dira, baina kide izateke, ikastegira atxikita egon gabe bertan eskolak ematen dituzten irakasleak, ikastegian egoitza daukaten sail edo institutuetako ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak, eta ikastegian zerbitzuak ematen dituztenak.

*4. artikulua.–* Eginkizunak.

Hauek dira Kimika Zientzien Fakultatearen eginkizunak:

a) Bai irakaskuntzari eta bai gestioari dagokionez, EHUko titulu akademiko ofizialak edo berezkoak antolatzea, bai eta bestelako espezializazio ikastaro, etengabeko prestakuntzako edo unibertsitate nahiz kultur hedakuntzako ikastaroak ere.

b) Urtero irakats eskaintza egitea, EHUko ikasketa programazioaren arabera, bai eta ikasturte bakoitzerako ikasketa planak ere, titulazio bakoitzean eskolak ematen dituzten sail guztiekin koordinazioan.

c) Ikasketa planak onetsi edo aldatzea proposatzea, eta EHUko beste organo batzuek halakorik proposatzen dutenean eta horrek berari eragiten dienean, ikasketa planak onetsi edo aldatzeko prozesuetan parte hartzea.

d) Ikastegian ematen diren titulazioen funtzionamendu orokorra ebaluatzea.

e) Irakasleen, administrazio eta zerbitzuetako langileen eta ikasleen eskubideak betearaztea eta bakoitzak bere eginbeharrak bete ditzan jagotea.

f) Ikastegiaren aurrekontuko hornidura gestionatzea, atxikita dauzkan baliabideak administratzea eta langileak gidatzea.

g) Ikastegiaren urteroko plana garatu eta betetzea.

h) Urteroko memoria egitea.

i) Hizkuntza plangintza orokorra garatu eta ikastegira egokitzea.

j) Etengabeko hobekuntza bultzatzea, eta langileen trebetasun pedagogikoa nahiz prestakuntza eguneratzea.

k) EHUko gainerako organoei laguntzea euren eginkizunak betetzen.

l) Zientzia, teknika, arte eta giza zientzien arloko jarduerak bultzatzea, eta espezializazio nahiz unibertsitate hedakuntzarako ikastaroak sustatzea.

b) Todo el alumnado matriculado en alguna de las titulaciones y/o estudios oficiales que imparte el Centro.

c) El personal de administración y servicios adscrito al Centro, según la vigente Relación de Puestos de Trabajo del Personal de Administración y Servicios (P.A.S.).

Están vinculados a la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea, sin ostentar la condición de miembros, otro profesorado que imparta enseñanzas en el Centro, el personal de investigación y el personal de administración y servicios de los Departamentos o Institutos con sede en el Centro, o que en él presten sus servicios, sin estar adscritos al mismo.

*Artículo 4.–* Funciones.

Son funciones de la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea:

a) Organizar la docencia y gestión de los títulos académicos oficiales o propios de la UPV/EHU que tengan atribuidos, u otros cursos de especialización, formación permanente o extensión cultural o universitaria.

b) Elaborar anualmente la oferta docente de acuerdo con la programación docente de la UPV/EHU y los planes de estudio para cada curso académico en coordinación con los Departamentos con docencia en sus titulaciones.

c) Proponer los planes de estudio para su aprobación o modificación, así como participar en el procedimiento de aprobación o modificación de idénticas propuestas cuando la iniciativa sea ejercida por otros Órganos de la UPV/EHU, siempre que les afecte.

d) Evaluar el funcionamiento general de las titulaciones que en ellos se impartan.

e) Velar por el respeto a los derechos y el cumplimiento de las obligaciones del profesorado, del personal de administración y servicios y del alumnado.

f) Gestionar su dotación presupuestaria, administrar los medios materiales y dirigir los recursos humanos adscritos.

g) Desarrollar y ejecutar la planificación anual del Centro.

h) Elaborar su Memoria anual.

i) Adaptar y desarrollar en el Centro la planificación lingüística general.

j) Incentivar la mejora continua, así como la renovación pedagógica y la cualificación de su personal.

k) Colaborar con los demás Órganos de la UPV/EHU en la realización de sus funciones.

l) Promover la realización de actividades de carácter científico, técnico, humanístico y artístico, así como el desarrollo de cursos de especialización y de extensión universitaria.

m) Ikasketa plana, Ikastegiko Zerbitzuak eta administrazioa aurrera eramateko beharrezko diren langileak proposatzea eta eskatzea.

n) Irakaskuntzan eta ikerketan laguntzeko zerbitzuak sustatzea eta kudeatzea, baita Legeak, Unibertsitatearen Arautegiak nahiz Estatutuek emandako beste guztiak ere.

## II. TITULUA

## FAKULTATEKO GOBERNU, ORDEZKARITZA ETA AHOLKULARITZA ORGANOAK

### I. KAPITULUA
### XEDAPEN OROKORRAK

*5. artikulua.–* Gobernu, ordezkaritza eta administrazio organoak.

1.– Honako hauek dira ikastegiko gobernu, ordezkaritza eta administrazio organoak: Ikastegiko Batzarra, dekanoa edo zuzendaria, dekanordeak edo zuzendariordeak, idazkari akademikoa eta administratzailea.

2.– Era berean, Kimika Zientzien Fakultatean gobernu, ordezkaritza eta administrazio organo osagarri hauek ere badaude:

– Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordea (UPV/EHUren Estatutuetako 132. artikulua).

– Konpentsazio Epaimahaia.

– Euskara Batzordea (UPV/EHUren Estatutuetako 172. artikulua).

– Laneko Arriskuen Prebentziorako Batzordea (31/1995 Legea, azaroaren 8koa).

– Hauteskunde Batzordea (UPV/EHUko Hauteskunde Arautegi Orokorreko 9. artikulua).

– Batzorde Ekonomikoa.

### II. KAPITULUA
### KIDE ANITZEKO ORGANOAK

*6. artikulua.–* Definizioa.

Ikastegiko organoak ondoko hauek dira: Ikastegiko Batzarra, Akademia Antolakuntzako Batzordea, Hauteskunde Batzordea eta arautegi honetan jasota dauden eta berezko eskumen erabakigarriak edo ordezkoak dituzten batzorde guztiak.

#### LEHENENGO ATALA
#### IKASTEGIKO BATZARRA

*7. artikulua.–* Osaera.

Fakultateko Batzarraren osakideak ondoko hauek izango dira: Dekanoa (batzarreko burua izango da),

m) Proponer y solicitar la plantilla necesaria para llevar a cabo su plan docente, la administración y los Servicios de la Facultad.

n) Promover y gestionar los Servicios propios de apoyo a la docencia e investigación y cualesquiera otras que la Ley, los Estatutos o la Normativa universitaria les confieran.

## TÍTULO II

## DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO, REPRESENTACIÓN Y ASESORAMIENTO DE LOS CENTROS DOCENTES

### CAPÍTULO I
### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 5.–* Órganos de gobierno, representación y administración.

1.– Son Órganos de Gobierno, representación y administración del Centro la Junta de Facultad, el Decanato, los Vicedecanatos, la Secretaría Académica y la Administración.

2.– Asimismo, en la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea existen los siguientes Órganos complementarios de gobierno, representación y/o administración:

– Comisión de ordenación académica y de convalidación de estudios (artículo 132 de los Estatutos UPV/EHU).

– Tribunal de Compensación.

– Comisión de euskera (artículo 172 de los Estatutos UPV/EHU).

– Comisión de Prevención de riesgos laborales (Ley 31/1995, de 8 de noviembre).

– Comisión electoral (artículo 9 del Reglamento de régimen electoral general de la UPV/EHU).

– Comisión Económica.

### CAPÍTULO II
### DE LOS ÓRGANOS COLEGIADOS

*Artículo 6.–* Definición.

Son Órganos del Centro: la Junta de Facultad, la Comisión de Ordenación Académica y la Comisión Electoral y todas las Comisiones con competencias resolutorias propias o delegadas, contempladas en el presente Reglamento.

#### SECCIÓN PRIMERA
#### LA JUNTA DE FACULTAD

*Artículo 7.–* Composición.

La Junta de Facultad estará integrada por el Decano o Decana que la preside, el Secretario o Secretaria Aca-

idazkari akademikoa (batzarreko idazkaria izango da), dekanordeak, administratzailea eta 20 osakide unibertsitateko lau kidegoen artean era honetan banatukoak:

– % 54 unibertsitatearekin lotura iraunkorra duten irakasleak: 11 osakide.

– % 15 bestelako irakasle eta ikertzaileak (funtzionario ez doktoreak barne): 3 osakide.

– % 20 ikasleak: 4 osakide.

– % 11 administrazio eta zerbitzuetako langileak: 2 osakide.

Edonola ere, dekanoak egiten duen dekanotza taldearen izendapen proposamenak errespetatu egingo du Fakultateko Batzarreko kideen % 54 unibertsitearekin lotura iraunkorra duten irakasle izatea.

*8. artikulua.–* Funtzionamendua eta Eskumenak.

1.– Ikastegiko Batzarra da Unibertsitateko Erkidegoak Ikastegian duen gobernu organo ohizkoa. Bertan hartutako erabakiek kide anitzeko eta kide bakarreko organo guztiak eta Ikastegiko pertsona guztiak lotesten dituzte.

2.– Ikastegiko Batzarra funtzionamendurako bere Arautegiaren arabera zuzenduko da eta, kide hautetsiei dagokienez, lau urtez behin berrituko da; ikasleen ordezkaritza salbuespena izango da, urtero berrituko baita.

3.– Ikastegiko Batzarreko kideak hautatzeko UPV/EHUko Hauteskunde Arautegi Orokorrean ezarritako prozedura eta Estatutuetan arau gisa ezarritakoa errespetatuko da.

4.– Fakultateko Batzarrak ikastegiaren bizitza akademikoan eragina daukaten oinarrizko erabaki guztiak hartu behar ditu, batez ere honakoak:

a) Fakultatearen arautegia prestatu eta Gobernu Kontseiluari proposatzea, hark onar dezan.

b) Ikastegiko dekanoa hautatzea.

c) Gobernu organoei irakasleen plantilan eta administrazio eta zerbitzuetako langileen plantilan dauden beharrizanak aurkeztea.

d) Unibertsitateko planetan biltzen diren helburuak ikastegira egokitzeko plana onartzea.

e) Hizkuntza normalkuntzako planak betetzeko eta plan horiei jarraipena egiteko ikastegiak dauzkan premien memoriak aurkeztea Campuseko Errektoreordetzari, hark errektoreari edo, hala dagokionean, Gobernu Kontseiluari bidera diezazkion.

f) Ikastegiari atxikitako irakasle lanpostuen eskariez iritzia ematea.

g) Ikasketa planak eta euren aldaketak egin eta proposatzea Gobernu Kontseiluari, bai eta titulazioak ezarri, aldatu eta kentzeko proposamenak ere.

démico, que actuará de secretario de la Junta, los Vicedecanos o Vicedecanas, el Administrador o Administradora y por 20 representantes, distribuidos entre los 4 sectores universitarios, que son:

– 54% Profesoras o Profesores con vinculación permanente a la Universidad: 11 representantes.

– 15% Otro personal docente e investigador, incluyendo los funcionarios no Doctores: 3 representantes.

– 20% Estudiantes: 4 representantes.

– 11% Personal administración y servicios (P.A.S.): 2 representantes.

En todo caso, la propuesta de nombramiento del equipo Decanal que efectúe el Decano o la Decana respetará la obligación de que el 54% de la totalidad de miembros de la Junta de Facultad sea Profesorado con vinculación permanente a la Universidad.

*Artículo 8.–* Funcionamiento y Competencias.

1.– La Junta de Facultad es el Órgano ordinario de Gobierno de la Comunidad Universitaria en la Facultad. Sus decisiones vinculan a todos los Órganos colegiados y unipersonales y a todas las personas del Centro.

2.– La Junta de Facultad se regirá, en su caso, por su Reglamento de funcionamiento propio y se renovará, en la parte de miembros electos, cada cuatro años, excepto en lo que se refiere a la representación del alumnado, que habrá de renovarse cada año.

3.– Para la elección de los miembros de la Junta de Facultad, se deberá respetar lo preceptuado en los Estatutos y el procedimiento establecido en el Reglamento de régimen electoral general de la UPV/EHU.

4.– Corresponde a la Junta de Facultad adoptar todas las decisiones fundamentales que afecten a la vida académica del Centro y, en particular, las siguientes:

a) Elaborar y proponer al Consejo de Gobierno, para su aprobación, el Reglamento de la Facultad.

b) Elegir al Decano o Decana.

c) Elevar a los Órganos de gobierno las necesidades de plantilla del profesorado y del personal de administración y servicios del Centro.

d) Aprobar el plan de adecuación al Centro de los objetivos contenidos en los planes universitarios.

e) Elevar al Vicerrectorado de Campus, para su tramitación ante el Rector o, en su caso, al Consejo de Gobierno, las Memorias de necesidades para cumplir los planes de normalización lingüística y realizar el seguimiento de dichos planes.

f) Informar las solicitudes de plazas de profesorado adscrito al Centro.

g) Elaborar y proponer al Consejo de Gobierno los planes de estudio y su modificación, así como la implantación, modificación y supresión de titulaciones.

h) Irakasteko behar diren azpiegituren planak edo irakaskuntzan nahiz ikerkuntzan sortutako bestelako premien planak aztertu eta onartzea, kontuan hartuta ikastegiari atxikitako sail edo sail atalen iritzia.

i) Ikastegiak eskaintzen dituen ikasketen kalitatea aldiro ebaluatuko dela bermatzea, eta unibertsitatearen zerbitzu publikoa hobetzeko neurriak proposatzea.

j) Bere zereginak betetzeko egoki diren batzordeak eratzea.

k) Irakasleen eta ikasleen ordezkaria izendatzea Campuseko Batzarrerako. Ikasleen ordezkaria izendatzeko proposamena ikastegiko Ikasleen Kontseiluak egingo du.

l) Fakultateak, beharrezkoa izanez gero, bere esker ona adierazteko erabiliko dituen moduak zabaldu eta arautzea.

m) Estatutuek eta beroriek garatzen dituzten arauek bere gain uzten dituzten gainerako eginkizun guztiak, edo EHUko beste gobernu organoek eskuordetzen dizkionak.

n) Bereziki, behin arautegi hau onartuta, Fakultateko Batzarrak funtzionatzeko arauak egin ahalko ditu.

5.– Fakultateko Batzarrak ohiko bilera bi egingo ditu, gutxienez, seihileko bakoitzean. Halaber ez-ohiko bilera izan daiteke Batzarreko kideen laurdenak ala eskatuko balu.

6.– Ikastegiko Batzarrak ohiko bileran eztabaidatu eta bozkatuko ditu urteko memoria, eginkizun plana eta urteko txosten ekonomikoa. Dokumentu horiek dekano edo zuzendariak aurkeztuko ditu bileran. Memoria eta eginkizunen plana behin onartuta, Campuseko Batzarrari eta Gobernu Kontseiluari bidaliko zaizkio, jakitun egon daitezen.

BIGARREN ATALA
BATZORDEAK

***9. artikulua.***– Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordea.

1.– Ikastegian jarduera akademikoa ahalik eta ongien antola dadin Fakultateko Batzarrari proposamenak egiteko eratuko da batzorde hau. Ikastegiko dekanoa edo honek bere ordez izendatzen duen pertsona izango da batzordeko burua, eta honako hauek izango dira gainerako kideak: 4 irakasle funtzionario doktore, egoitza Ikastegian duten eta irakaskuntzan diharduten 4 sailen ordezkari gisa; bestelako irakasleen taldeko 2 irakasle (baldintza gisa ezartzen da Ikastegiko sail desberdinetakoak izan daitezela); eta bi ikasle (horietako batek Hirugarren Ziklokoa edo Gradu-ondokoa beharko du izan). Kideetako bat idazkari izango da.

h) Aprobar, contando con los Departamentos o secciones departamentales adscritas al Centro y previa valoración de conjunto, los planes de infraestructuras docentes o de otras necesidades derivadas de la docencia e investigación.

i) Garantizar la realización de evaluaciones regulares de calidad sobre las ofertas docentes del Centro y proponer medidas de mejora del servicio público universitario.

j) Designar cuantas Comisiones juzgue oportunas para el ejercicio de sus funciones.

k) Designar al representante del profesorado y del alumnado, éste último a propuesta del Consejo de Estudiantes del Centro, en la Junta de Campus.

l) La creación y regulación, en su caso, de las condiciones para la concesión de reconocimientos honoríficos por parte de la Facultad.

m) Cuantas otras le confieran los vigentes Estatutos y su normativa de desarrollo o le sean delegadas por otros Órganos de gobierno de la UPV/EHU.

n) Particularmente, una vez se haya aprobado el presente Reglamento, la Junta de Facultad podrá elaborar sus normas de funcionamiento.

5.– La Junta de Facultad se reunirá, con carácter ordinario, al menos dos veces en cada semestre. Se reunirá, así mismo con carácter extraordinario a petición de una cuarta parte de sus miembros.

6.– La Junta de Facultad en sesión ordinaria debatirá y votará su Memoria anual, el Plan de actividades del Centro y el Informe económico anual, presentados por el Decanato. La Memoria y el Plan de actividades aprobados serán remitidos, para su conocimiento, a la Junta de Campus y al Consejo de Gobierno.

SECCIÓN SEGUNDA
COMISIONES

***Artículo 9.***– Comisión de Ordenación Académica y Convalidación de Estudios.

1.– Con el fin de conocer y hacer propuestas a la Junta de Facultad, sobre la mejor ordenación de la actividad académica en el Centro, se constituirá dicha comisión, presidida por el Decano o Decana del Centro, o persona en quien delegue, y estará compuesta por 4 profesores o profesoras funcionarios Doctores, en representación de los 4 Departamentos con actividad docente y sede en la Facultad, 2 profesores o profesoras pertenecientes al Estamento de otro personal docente, con el requisito de que pertenezcan a diferentes Departamentos de la Facultad, 2 estudiantes, uno de los cuales deberá ser del Tercer Ciclo o de Postgrado. Uno de sus miembros actuara como Secretario.

2.– Ez da beharrezkoa izango Ikastegiko Batzarreko kide izatea batzorde horretako kide izan ahal izateko.

Ordezkariak jarraian adierazten den bezala hautatuko dira:

– Irakasle funtzionario doktore bana, 4 sailetako bakoitzak proposatuta.

– 2 irakasle edo ikertzaile kontratatu, Ikastegiko Batzarreko haien ordezkariek proposatuta.

– 2 ikasle, Fakultateko Ikasleen Kontseiluak proposatuta.

Ordezkari horiek Ikastegiko Batzarrak berretsiko ditu.

3.– Ikastegiko Dekanotzak bermatuko du Ikastegiko Bulegoak aholkularitza teknikoa emango diola batzordeari.

4.– Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordeak, eskuordetuko zaizkion eginkizunez gain, ikasketak baliozkotzeko eta aukera askeko kredituak amortizatzeko ikasleek aurkeztuko dituzten eskariak ebatziko ditu, indarreko legeriari jarraiki. Batzordeak hartutako ebazpenen aurkako errekurtsoak Errektoreari aurkeztu ahal izango zaizkio.

*10. artikulua.–* Konpentsazio Epaimahaia.

1.– Kudeaketa Akademikoaren Arautegia betez, Kimika Zientzien Fakultateak Konpentsazio Epaimahai bat izango du; epaimahaiaren buru dekanoa izango da, edota, hark bere ordez jarririko dekanordea.

2.– Ikastegiko Idazkaritza Akademikoaren ardura duen pertsonak beteko ditu epaimahaiko idazkariaren zereginak, hitzarekin baina botorik gabe, eta, horiez gainera (buruaz eta idazkariaz gainera) ezagutza-alor desberdinetako Ikastegiko 6 irakaslek osatuko dute epaimahaia; Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan.

3.– Ez da beharrezkoa izango Ikastegiko Batzarreko kide izatea epaimahaian parte hartzeko.

4.– Epaimahaiaren bileretan ikasle batek parte hartu ahal izango du. Ikastegiko Ikasleen Kontseiluak izendatuko du, eta hitza izango du baina botorik ez.

5.– Epaimahaiaren erabakien aurkako errekurtsoak UPV/EHUko Gobernu Kontseiluko Konpentsazio Epaimahaiaren aurrean jarri ahal izango dira (epaimahai horren burua, errektoreak beren-beregi eskuordetuta, Ikasleen Errektoreordea da).

*11. artikulua.–* Euskara Batzordea.

1.– UPV/EHUko plangintza orokorraren barruan, eta Ikastegiko egoeraren arabera, euskararen erabilera bultzatzeko asmoz eratuko da Kimika Zientzien Fakultateko Euskara Batzordea.

2.– No será necesario ser miembro de la Junta de Facultad para poder formar parte de esta Comisión.

Los representantes se elegirán como sigue:

– 1 Profesor Funcionario Doctor a propuesta de cada uno de los 4 Departamentos.

– 2 Profesores o Investigadores contratados, a propuesta de sus representantes en Junta de Facultad.

– 2 Estudiantes, a propuesta del Consejo de Estudiantes de la Facultad.

Dichos representantes deberán ser ratificados por la Junta de Facultad.

3.– El Decanato del Centro garantizará el asesoramiento técnico, a la Comisión, por parte del Negociado del Centro.

4.– Junto al ejercicio de las funciones que se le deleguen, la Comisión de Ordenación Académica y Convalidación de Estudios resolverá las solicitudes de convalidación y de reconocimiento de equivalencias en créditos de libre elección que se le presenten, de acuerdo con la Normativa vigente. Las resoluciones de la Comisión serán recurribles ante el Rector.

*Artículo 10.–* Tribunal de Compensación.

1.– En cumplimiento de la Normativa de Gestión Académica, la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea contará con un Tribunal de Compensación presidido por el Decano o Decana, quien podrá delegar en un Vicedecano o Vicedecana.

2.– La persona que ostente la Secretaría Académica del Centro hará las funciones de Secretario del Tribunal, actuando con voz pero sin voto, y, junto con ellos (Presidente y Secretario), el Tribunal estará integrado por 6 profesores o profesoras del Centro que pertenezcan a áreas de conocimiento diferentes, que serán nombrados/as por la Junta de Facultad en el primer trimestre de cada curso académico.

3.– No será necesario pertenecer a la Junta de Facultad para formar parte de este Tribunal.

4.– A las reuniones del Tribunal podrá acudir un estudiante, designado por el Consejo de Estudiantes del Centro, quien participará con voz pero sin voto.

5.– Las resoluciones del Tribunal podrán ser recurridas, ante el Tribunal de Compensación del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, presidido por el Vicerrector o Vicerrectora de estudiantes, por expresa delegación del Rector.

*Artículo 11.–* Comisión de Euskera.

1.– Con la finalidad de impulsar el uso del euskera, según las circunstancias del Centro, dentro de la planificación general de la UPV/EHU, se constituirá la Comisión de Euskera de la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea.

2.– Batzordearen buru dekanoa edota honek bere ordez izendatzen duen pertsona izango da, eta 4 irakasle funtzionariok, irakasle edo ikertzaile kontratatu batek, 2 ikaslek eta AZPko kide batek osatuko dute.

3.– Ez da beharrezkoa izango Ikastegiko Batzarreko kide izatea batzordeko kide izateko. Ikastegiko Batzarrak hautatuko ditu ordezkariak, honako irizpide honen arabera:

– 4 irakasle funtzionarioak, Ikastegian diharduten eta egoitza Ikastegian bertan duten sailek proposatuta.

– Irakasle eta/edo ikertzaile kontratatua (bat), kidegoak Ikastegiko Batzarrean dituen ordezkariek proposatuta.

– 2 ikasleak, Ikastegiko Ikasleen Kontseiluak proposatuta (horietako batek Hirugarren Ziklokoa edo Gradu-ondokoa beharko du izan).

– AZPren ordezkaria (bat), kidegoak Fakultateko Batzarrean dituen ordezkariek proposatuta.

4.– Kideetako bat idazkari izango da.

5.– Ikastegiko Dekanotza arduratuko da Euskara Errektoreordetzak aholkularitza teknikoa emango diezaion batzordeari.

6.– Batzorde hau partaidetza eta aholkularitza organoa da, eta hartutako erabakiak Ikastegiko Batzarrak berretsiko ditu.

*12. artikulua.*– Laneko Arriskuen Prebentziorako Batzordea.

1.– Laneko arriskuen identifikaziorako eta prebentziorako behar diren neurriak aztertu, ezagutu eta bete daitezen Ikastegiko Batzarrari proposamenak egiteko eratuko da batzordea. Batzordeko burua dekanoa izango da, edota honek bere ordez izendatzen duen pertsona bat, eta honako kide hauek ere izango ditu: ikastegiko sail desberdinetako irakasleen edo ikertzaileen 4 ordezkari, 2 ikasle (horietako batek Hirugarren Ziklokoa edota Gradu-ondokoa beharko du izan) eta AZPren bi ordezkari.

2.– Ikastegiko administratzailea izango da batzordeko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe, batzordeko kide hautatu ezean.

3.– Batzordeko kideak Ikastegiko Batzarrak hautatuko ditu, norberaren kidegoak proposatuta.

4.– Dekanotza arduratuko da UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak aholkularitza eman diezaion batzordeari, eta Fakultateko Autobabeserako Taldearekin koordinatuta egon dadin.

*13. artikulua.*– Hauteskunde Batzordea.

1.– Estatutuetako Seigarren Tituluan agindutakoari dagokionez, UPV/EHUko Hauteskunde Arautegi Orokorraren 9. artikulua betez, Kimika Zientzien Fakultateko Hauteskunde Batzordea eratuko da.

2.– Dicha Comisión se constituirá bajo la Presidencia del Decano o Decana, o persona en quien delegue, y estará compuesta por 4 profesores funcionarios, 1 profesor o investigador contratado, 2 estudiantes y 1 P.A.S.

3.– No será necesario pertenecer a la Junta de Facultad para ser miembro de dicha Comisión. Los representantes serán elegidos por la Junta de Facultad de acuerdo al siguiente criterio:

– Los 4 profesores funcionarios, a propuesta de los Departamentos con actividad y sede en el Centro.

– El profesor y/o Investigador contratado (1), a propuesta de sus representantes en la Junta de Facultad.

– Los 2 estudiantes, a propuesta del Consejo de Estudiantes del Centro, uno de ellos deberá ser de Tercer Ciclo o Postgrado.

– 1 representante del P.A.S., a propuesta de sus representantes en la Junta de Facultad.

4.– Uno de los miembros, deberá actuar como Secretario.

5.– El Decanato del Centro procurará el asesoramiento técnico del Vicerrectorado de Euskera a la Comisión.

6.– Esta Comisión tiene la consideración de Órgano de participación y asesoramiento, sus decisiones deberán ser ratificadas por la Junta de Facultad.

*Artículo 12.*– Comisión de Prevención de Riesgos Laborales.

1.– Con el fin de conocer, cumplir y hacer propuestas a la Junta de Facultad sobre la identificación y prevención de riesgos laborales, se constituirá una Comisión bajo la Presidencia del Decano o Decana, o persona en quien delegue, junto con 4 representantes del P.D.I., pertenecientes a los Departamentos del Centro, 2 estudiantes, uno de los cuales deberá ser de Tercer Ciclo o Postgrado, y 2 representantes del P.A.S.

2.– El Administrador o Administradora del Centro actuará como Secretario de dicha Comisión, con voz pero sin voto, salvo en el caso en que sea elegido/a miembro de la Comisión.

3.– Los miembros de la Comisión, serán elegidos por la Junta de Facultad a propuesta de sus respectivos Estamentos.

4.– El Decanato procurará el asesoramiento, a la Comisión, del Servicio de Prevención de la UPV/EHU y la coordinación con el Equipo de Autoprotección de la Facultad.

*Artículo 13.*– Comisión Electoral.

1.– En cumplimiento del artículo 9 del Reglamento de Régimen Electoral General de la UPV/EHU, en relación con lo prescrito en el Título Sexto de los Estatutos, se constituirá una Comisión Electoral de la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea.

2.– Kimika Zientzien Fakultateko hauteskunde batzordeko kideak honakoak izango dira:

a) Dekanoa edo hark eskuordetutakoa (batzordeko burua izango da).

b) Idazkaria (batzordeko idazkaria izango da).

c) Bi irakasle: bata unibertsitateko kidegoetako funtzionario doktorea, eta bestea bestelako irakasle eta ikertzaileen taldekoa (biak ikastegiko batzarreko kideen artetik zozketaz aukeratuak).

d) Ikasleen ordezkari bat, ikastegiko batzarreko kideen artetik zozketaz aukeratua.

e) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, ikastegiko batzarreko kideen artetik zozketaz aukeratua.

3.– Hauteskunde batzordearen agintaldia lau urtekoa izango da. Ikasleen ordezkariak urtero-urtero aldatuko dira.

4.– Hauteskunde batzordeko kideren bat hautagai bada, ordezkoa izendatu beharko da adierazitako prozedurari jarraiki. Hori egiterik ez badago, Fakultateko Batzarrak erabakiko ditu egin beharrekoak.

5.– Hauteskunde batzordearen bileretarako deia batzordeburuak egingo du.

6.– Batzordearen bilera baliozkoa izan dadin, gutxienez batzordeko hiru kide, presidentea eta idazkaria egon beharko dira bertan.

7.– Bertaraturikoen botoen gehiengoaz hartuko dira erabakiak, eta, berdinketa dagoenetan, batzordeko buruaren botoak erabakiko du.

8.– Ondoko hauek dira hauteskunde batzordearen eskumenak:

a) Hauteskunde prozesuaren gestioa, deialdiari jarraituz.

b) EHUko Hauteskunde Arautegi Orokorra garatzeko Hauteskunde Batzorde Nagusiak erabakitakoa edo batzorde horrek arautegiari buruz interpretatutakoa egitea.

c) Hauteskunde prozesuari buruzko gainontzeko arautegia interpretatzea.

d) Antzematen diren hutsuneak edo akatsak zuzentzea, xedapen egokien bidez.

e) Hautesle errolda egitea, administrazioko zerbitzuek emandako zerrendak oinarri hartuta.

f) Hautesle errolda argitaratzea.

g) Hautesle errolda kontuan hartuta, zenbat hauteskunde mahai jarri behar diren erabakitzea; ikastegiko edo saileko atal bakoitzeko gutxienez mahai bat jarri beharko da.

2.– La Comisión Electoral de la Facultad de Ciencias Químicas / Kimika Zientzien Fakultatea la componen:

a) El Decano o Decana o persona en quien delegue, que actuará como Presidente.

b) El Secretario o Secretaria, que actuará como Secretario/a de la Comisión.

c) Dos representantes de los profesores, uno por el colectivo de funcionarios doctores de los cuerpos docentes universitarios y otro por el de otro personal docente e investigador, elegidos por sorteo de entre los miembros de la Junta de Facultad.

d) Un representante de los estudiantes, elegido por sorteo de entre los miembros de la Junta de Facultad.

e) Un representante del personal de administración y servicios, elegido por sorteo de entre los miembros de la Junta de Facultad.

3.– La Comisión Electoral tendrá un mandato de cuatro años. La representación del alumnado se renovará anualmente.

4.– Los miembros de la Comisión Electoral que formen parte de alguna candidatura deberán sustituirse por el procedimiento anterior siempre que ello sea posible. En caso contrario, la Junta de Facultad adoptará las medidas que estime oportunas.

